



GOBERNU-KONTSEILUARI AURKEZTEKO MEMORIA LABURRA

EUSKAL KASAZIO-ERREKURTSO ZIBILARI BURUZKO LEGE- PROIEKTUAREN INGURUKOA

1. PROPOSATUTAKO LEGEGINTZAKO EKIMENAREN EDUKIA ETA HELBURUA.

Aurreproiektuak kasazio-errekurtsu zibil propioa jarri nahi du abian, auzitegiek zuzenbide horri buruz duten doktrinari uniformetasuna emateko eta mota horretako errekurtsoen berezko azken helbururako balio izateko: jurisprudentzia bateratu ahal izatea zuzenbide objektiboaren interpretazioan eta aplikazioan, ordenamendu juridikoaren batasuna lortzeko.

2. LANTZEKO PROZEDURA ETA AMAIERAKO TESTUA.

2.1. Ekimenaren jatorria eta aurrekariak

Legegintzako ekimen honek, jatorriz, **Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak egindako arau-proposamen** bati erantzuten dio.

Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordearen (EZZB) –Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen lehen xedapen gehigarriaren bidez sortu zen batzorde hori– lehentasunezko zereginetako bat «euskal kasazio zibila arautzeko lege-proiektua egitea» zen.

2018. urterako aurkeztu zuen lehenengo jarduketan eta urteko jardueren planetik abiatuta, Euskal Zuzenbide Zibilaren Batzordeak geroago lege-aurreproiektu gisa izapidetu ahal izango zen testu bat egiteko lanei ekiteko asmoa adierazi zuen. Lehenengo lege-zirriborroa **EZZBren osoko bilkuraren urteko batzarrean aurkeztu zen (2018ko abenduaren 12an egin zen)** eta batzar horretan bertan erabaki zen ekarpenak eta zuzenketak egiteko epearen ondoren presidenteari testu bat aurkeztuko zitzaiola, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak agindutakoari jarraituz izapidetzen hasteko.

Garai hartan, lege-proposamena orduko EZZBko presidente eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari helarazita, hark, gai horretaz arduratzen

zen Eusko Jaurlaritzako saileko titular gisa, aurreproiektuaren izapide administratiboak adierazitako baldintzetan abiatzeko agindu zuen.

2.2. Izapidetze administratiboa.

Aurretik adierazitakoari jarraituz, aurreproiektu hau gobernu-kontseiluari helarazi aurretik, lege-proiektu gisa onar dezan eta Eusko Legebiltzarrari igor diezaion, lege-aurreproiektu gisa aurkeztutako testuak honako izapidetze hau bete du:

Izapidea	Eskaera edo ekarpena bidaltzeko modua	Aurkezpen telematikoren edo postako jasotze-agiriaren data	Emandako epea	Alegazioak egiteko azken eguna	Txostenei edo alegazioei erantzuteko data
Iragarki-taulan argitaratzea (jendaurreko kontsulta)		2019/05/08	1 hilabete	2019/06/05 (amaitua)	-
Hasteko agindua	Espedienteari ekarpen telematikoa	2019/06/05	-	-	-
Legesarea	19-044 ekarpena	2019/06/06	-	-	-
Aurretiko onarpena emateko agindua eta aurretik onartutako testua	Espedienteari ekarpen telematikoa	2019/06/20	-	-	-
Legegunea	Espedienteari etengabeko ekarpen telematikoa	Hasteko agindua 2019/06/17 Aurretiko onarpen-agindua 2019/07/04			
Justifikazio-memoria.	Espedienteari ekarpena	2019/06/20	-	-	-
Legebiltzarrera bidaltzea	Aurretiko onarpenaren 1. bidalketa, telematikoa	2019/06/21			
Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Aholkularitza Juridikoaren txosten juridikoa	Eskaera telematikoa	2019/06/27	20 egun baliiodun	2019/07/25 (amaitua)	2019/10/01
HHABHZren txostena	Eskaera telematikoa	2019/06/27	20 egun baliiodun	2019/07/25	2019/07/04
Hizkuntza-normalizazioari buruzko txostena	Eskaera telematikoa	2019/06/27	20 egun baliiodun	2018/07/25	2019/06/28
Osasun Saileko Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29	2019/07/02

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29	2019/07/17
Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29	2019/07/15
Lehendakaritzako Aholkularitza Juridikoa	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	-
Segurtasun Sailaren Aholkularitza Juridikoa	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	-
Ogasun eta Ekonomia Saileko Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	2019/09/02
Hezkuntza Saileko Aholkularitza Juridikoa	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	-
Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29	2019/06/28
Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	2019/07/04
Lan eta Justizia Saileko Aholkularitza Juridikoaren alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	2019/09/23
Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Aholkularitza Juridikoa	Eskaera telematikoa	2019/06/28	20 egun baliiodun	2019/07/29 (amaitua)	-
Gipuzkoako Foru Aldundia	Posta	2019/07/02 Bulegoan entregatua, 2019/07/04	20 egun baliiodun	2019/08/02 (amaitua)	-
Arabako Foru Aldundia	Eskaera telematikoa	2019/07/01	20 egun baliiodun	2019/07/30 (amaitua)	-
Bizkaiko Foru Aldundia	Eskaera telematikoa	2019/07/01	20 egun baliiodun	2019/07/30 (amaitua)	-
EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen alegazioak	Eskaera telematikoa	2019/07/01	20 egun baliiodun	2019/07/30 (amaitua)	-
EHU	Eskaera telematikoa	2019/07/01	20 egun baliiodun	2019/07/30 (amaitua)	-
Deustuko Unib.	Eskaera telematikoa	2019/07/01	20 egun baliiodun	2019/07/30 (amaitua)	-
Mondragon Uni.	Eskaera telematikoa	2019/07/01	20 egun baliiodun	2019/07/30 (amaitua)	-
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoa	Eskaera telematikoa	2019/07/01 Telematikoki iritsi ez zenez,	20 egun baliiodun	2019/08/13	2019/08/09

		2019/07/16an birbidali zen			
Arabako Abokatuen Elkartea	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/04	20 egun baliodun	2019/08/02	2019/07/30 Burofata alegaziorik gabe eta Legelarien Euskal Kontseilu gisa alegazioak
Bizkaiko Abokatuen Elkargoa	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/09	20 egun baliodun	2019/08/06	2019/08/01 (posta elektronikoz, idazkariari zuzenduta)
Kooperatiben Goren Kontseilua	Eskaera telematikoa	2019/07/02	20 egun baliodun	2019/07/31	2019/07/18
Arabako Prokuradoreen Elkargoa	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/08	20 egun baliodun	2019/08/06 (amaitua)	-
Bizkaiko Prokuradoreen Elkargoa	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/04	20 egun baliodun	2019/08/02 (amaitua)	-
Gipuzkoako Prokuradoreen Elkargoa	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/04	20 egun baliodun	2019/08/02 (amaitua)	-
Zuzenbidearen Euskal Akademia	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/09	20 egun baliodun	2019/08/07	2019/07/31
Notario Elkargoa	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/05	20 egun baliodun	2019/08/05 (amaitua)	-
Erregistratzaileen Elkargoa	Posta	2019/07/02 Helbidean entregatua, 2019/07/04	20 egun baliodun	2019/08/02 (amaitua)	-
Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia	Posta	2019/07/12 Epearen luzapena, 2019/09/06an ondoreak	20 egun baliodun 15 eguneko epe-luzapena	2019/09/27 (amaitua)	2019/11/04
EHAA, jendaurreko informazioaren ebazpena	Eskaera telematikoa	EHAA, 147 zk., 2019/08/06	20 egun baliodun	2019/09/04 (amaitua)	-
Emakunderen Egiaztapen Txostena	Eskaera telematikoa	2019/10/01	20 egun baliodun	2019/10/29	2019/10/29
Memoria ekonomikoa	Espedienteari ekarpena	2019/10/18	-	-	-
Izapidetze-memoria, KEBentzat	Espedienteari ekarpena	2019/10/18	-	-	-

Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena (KEB)	Eskaera telematikoa	2019/10/18	15 egun	2019/11/11 (amaitua)	2019/11/12
Bigarren izapidetze-memoria, ABJrentzat.	Espedienteari ekarpena		-	-	-

Hala izapidetutako aurreproiektua **EZZBren osoko bilkurak 2019ko abenduaren 19an egindako batzarrean** aurkeztu zen, azken izapidetze-memoriaren zirriborroarekin batera («Bigarren izapidetze-memoria, ABJrentzat», orduan oraindik espedientean sartu gabe zegoen).

Horregatik, ekimenaren abiapuntua kontuan hartuz eta EZZBko kideek espedienteko dokumentazio osoa eskuratu ahal izan zezaten, EZZBren presidente eta Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak (eta Euskal Zuzenbide Zibilarren Batzordeko presidentea) **aurreproiektuaren izapidetze administratiboa behin-behinekoz etetea** erabaki zuen (beraz, ez zitzaion Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari azken irizpena emateko eskatu).

Etete hori **luzatu egin behar izan zen, geroago, lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarra desegin zelako**, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deia egiten duen Lehendakariaren otsailaren 10eko 2/2020 Dekretuagatik (desegite horrek Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta-organo gorenak irizpen bat ematea eragozten zuen, irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamenduaren 20.1 artikulua aplikatuz). Eta, bigarrenik, horren ondoren **hauteskunde-deialdia atzeratu egin zelako**, COVID-19aren ondoriozko osasun-krisia dela-eta Eusko Legebiltzarrerako 2020ko apirilaren 5eko hauteskundeak indarririk gabe utzi eta deialdi berria egitea zehazten duen Lehendakariaren martxoaren 17ko 7/2020 Dekretuari jarraituz.

Beraz, joan den 2020ko abuztuaren 3an eusko legebiltzar berria eratu ondoren eta, geroago, EAEko gobernu berria, joan den 2020ko irailaren 8an, **berriz heldu zitzaion aurreproiektuari eta izapidetzea berrabiatu zen**, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren **2020ko urriaren 20ko Aginduaren bidez**, zeinaren bidez Batzordeari euskal kasazio-errekurtso zibilar buruzko lege-aurreproiektuaren inguruko irizpena emateko eskatzen baitzion. Horrez gain, espedienteari azken izapidetze-memoria erantsi zitzaion («Bigarren izapidetze-memoria, ABJrentzat»).

Ondorioz, aurreproiektu honen izapidetzea amaitu egin zen, memoria hau egin eta gobernu-kontseiluari lege-proiektu gisa azken onarpena emateko aurkeztu aurretik, honako izapidetze hau eginda:

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren (ABJ) irizpena	Eskaera telematikoa (Sailburuaren aginduz)	2020/10/20	2 hilabete	2020/12/20 (amaitua)	2020/12/16
---	--	------------	------------	----------------------	------------

2.3. Izapidetzearen balorazioa.

Aurreko izapidetzea aztertu ondoren, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, aipatutako irizpenaren bitartez (189/2020 Irizpena, 2020ko abenduaren 16ko bileran onartua), 80. paragrafoan, honako hau berresten du: «**Kasazio-errekurtso zibilaren lege-aurreproiektua egiteko prozedurak bere helburua bete du, behar bezala islatzen baitu zer errealitateri erantzun nahi dion eta zein den jasotako arau-aurreikuspenen funtsa, horiek irtenbide arautzaile onenak izateko zer arrazoi dauden azalduz. Hala, proiektatutako testua aztertzeke behar diren elementuak biltzen ditu**».

2.4. Aurreproiektuaren eskumen-oinarriaren eta edukiaren balorazioa eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena aintzat hartuz egindako aldaketak.

Autonomia Erkidegoko aholku-organo gorenak, 2020ko abenduaren 16ko bileran onartu zuen 189/2020 Irizpenean, aurkeztu zitzaion lege-aurreproiektuari buruzko honako ondorio hau atera zuen: «**Batzordearen irizpena da, irizpen honen testuan egindako oharrak kontuan hartu ostean, erreferentziatzko lege-aurreproiektua gobernu-kontseiluari aurkez dakiokela, hark onar dezan**».

Hala, zehazki, irizpenaren testuan (83. eta 84. paragrafoak), testuaren eta bere eskumen-oinarriaren honako balorazio orokor hau egiten du: «**Zalantzarik gabe, EAEk euskal kasazio-errekurtso zibila arautzeko lege bat emateko eskumena du, bere Autonomia Estatutuaren 10.6 artikulua esleitzen dion eskumen eskusiboa aintzat hartuta**» (...) Hori berresten du martxoaren 25eko 47/2004 KAEak, zeinak Galiziako zuzenbide zibilaren kasazio-errekurtsoaren erregulazio autonomikoa «inolako zailtasunik gabe» sartu baitzuen «legeria prozesalaren» eskumen-eremuan. Legeria prozesal horren inguruko eskumen-banaketarako arauak EKren 149.1.6 artikulua ezartzen ditu. Horren arabera, legeria hori Estaturako erreserbatuta dago eskumen eskusibo gisa, «...baina erreserba hori ez da osoa eta erabatekoa, aipatutako konstituzio-manuak arauketa-eremu bat ahalbidetzen baitie autonomia-erkidegoei, honako hau adieraztean: “ordena honetan [ordena prozesalean] Erkidego Autonomoetan bere-berea duten legeriaren berezitasunak salbu”».

Aurreproiektuaren edukiaren balorazioari dagokionez, ABJren irizpenaren ardatza, nagusiki (xehetasunekin eta araugintza-teknikarekin lotutako auziez haratago), **justifikazioaren azalpena zabaltzeko gomendioa** izan zen, **batez ere aurreproiektuaren zioen azalpenean jasotakoa**, zuzenbide substantiboarekin duen loturari dagokionez eta, bereziki, legeak zuzenbide komuneko kasazio-araubidearekin alderatuz barne hartu dituen berritasunei

dagokionez. Justifikazio horrek, gainera, berezitasun substantiboa identifikatetik haratago joanda, zehazki argitu behar du zein diren euskal zuzenbide zibilaren berezitasun horrek (euskal zuzenbide zibila osotasunean hartuta, ez arau edo instituzio zehatz gisa ulertuta) arau prozesal komunean beharrezko erantzuna ez aurkitzeko eta tratamendu ezberdina erreklamatzeko arrazoiak.

Ildo horretan, zioen azalpena nabarmen zabaldu da; bereziki, legeak barne hartzen dituen berritasunei buruzkoak eta, oso bereziki (Irizpenak 132. paragrafoan eskatzen duen bezala), kasazio-errekurtsoaren xedea autoetara zabaltzeari eta horretarako ezartzen den araubideari buruzkoak.

Artikuluetakoko testuari dagokionez, zentzu hertsian, **ABJren irizpenean jasotako gomendioak, osoki aintzat hartuak**, hiru auzi oso zehatzetara mugatzen dira (legegintza-teknikako oharrekin batera, horiek ere aintzat hartuak):

Hala, alde batetik, **5. artikuluko 2. kasuaren idazketa aldatu da**, lehen azken tartekian agertzen zen Prozedura Zibilaren Legearen aipamena ezabatuz. PZLaren aipamenak mezua iluntzen zuela ulertu da (Irizpeneko 196. paragrafoan jasotako gomendioari jarraituz); izan ere, 5. artikulua, hasieran zehazten duenez, ezartzen dituen ez onartzeko kasuak PZLkoei gehitzen zaizkie («Prozedura Zibilaren Legean aurreikusitako kasuez gain»), beraz, edo erredundantea zen edo ez zuen zentzurik ez onartzeko kasu propio gisa.

Halaber, **5. artikuluko horretako bertako 4. kasua ezabatu da**, hala, aurreko 5. apartatua 4. apartatua bihurtu da. Ezabatutako apartatuak PZLaren 483.2.4 artikulua berregiten zuela ulertu da (Irizpeneko 198. paragrafoko gomendioari jarraituz) eta, araubide komunaren inguruko zehaztasunik, moldaketarik edo ñabardurarik jasotzen ez zuenez, eta ez onartzeko araubidearen antolaketa PZLko kasuetatik abiatzen denez, erredundantea zela eta mezua iluntzen zuela, memoria honetako aurreko paragrafoan 5. artikuluko horretako bertako 2. kasuari buruz adierazitakoaren modu berean.

Azkenik (Irizpeneko 207. apartatuko gomendioari jarraituz), **azken xedapenetako lehenengoaren izenburua** aldatu da: aurretik jasotako «Ordeztailetasun-araubidea» izenburuaren ordez «Arau prozesal orokorrera bidaltzea» zehatzagoa jarri da, onartuz xedapen horrek ez duela inolako ordeztailetasunik ezartzen –ez litzateke posible izango, martxoaren 25eko 47/2004 KAEan arrazoitu bezala–, PZLak aurreproiektuan araututako kasazio-errekurtso zibilean zuzenean aplikatzeko araua izaten jarraitzen duelako. Izenburu berri horrek hobeto islatzen du, beraz, xedapenaren benetako arauketa-mezua.